

# LIBURUAK

ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA. J. de Moret eta F. de Alenon. I eta II-gn tomoak. Pascual Ibañez Irarkolan imprimatua. 1766. Bigarren Argitaldaria, La Gran Enciclopedia Vasca, 1969. Biltao.

Jose Maria Martin Retanak egiten ari dan lana ezin dezake inork uka. Agertuak zeuden liburu garantzitsu asko argitaratu du, eta uste dugu oraindik lan haundia egingo duala Euskal Kulturaren alde. Har beza gure kemen eta adorea aurrera jarrai dezan!

Euskal bibliografo ospetsu izan ziran Alenon Salazar eta Sorra-rain-ek ditotenez, ANNALES DE REYNO DE NAVARRA-ren egile izan zan jesuita famatu Jose de Moret omen da «Nafarroako gauzen idazterik argiena, eta kritikoa eta ezautzalea, eta zabal eta luze tratatu ditua»

Martin Reanak dion bezala, nahiz eta batzuk Moreten lan hau gain-behera bota nahi badute ere, eta —gure adefetik erantsitzen diogu, bere hutsak baditu ere— dudarik gabe, antzina Eurreinaren histori osatuena hau da. Danok dakigu Nafar-Errehuak Zamoratik Barcelona izan zituala bere mugak, eta Añamendi aruntatik berri-ri Ipar-alde ala Hego aldeko lur sail zabalena jabe izan zala.

Horregatik oso interesgarria iruditzen zaigu Historia hau; La Gran Enciclopedia diari esker, edozeinek ezagutu dezake Euskalerraren buru ta bihotz dan Nafarroaren kondaira.

Lehendik hiru aldiz argiratu zan idaz-lan hau. Orainoagorain laugarrena dugu, nahiz eta berez zabaldu diranak hiru izan badira ere. Faksimilean argitaratua izan da. Gure eskutara bi bakarrik iritxi zaizkigu. Halere pozik espero ditugu beste lau tomo, Moreten eta Alenonenak eta beste bat, oraingo kritika batekin. Gaurko kondaira kritika Jose Ramon Castrok egingo dio, muskariatarra, mediku eta Ziru-rujan litzendiduna, eta Historia saileko Filosofia eta Letras-en ere bai, eta Nafarroako Artixibu Jeneralean zuzendari izana gizaldi laur-

den batean. Beste titulu asko ditu eta bere lanak ere ugariak dira historia lanean batez ere.

Bi tomo hoen historia gutxi gorabehera 1.200 urteena da, eta azkenengo argitaraldia mapaz eta

## 'SUSTRAI BILA'

liburuaz ohar bat:

Ene liburua agertu ondoren, kritika batzuk izan ditut, eta bihotzez eskertu nahi ditut denak.

«IRITZIRITZI» aditaz idatzi dudana osatu eta zuzendu beharra erakutsi dit, batez ere, Mitxelena jaunak. Eta prestatzen ari naizen «Sustrai Bila, II» delakoan agertuko da. Aditx hori «defektibo» gisa erabiltzen da aspaldi honetan [ikus Laffitte-ren «Grammaire Basque», esate baterako, 332; edota, Azkue-ren «Morfologia», 558, oso hurri]. Azterketarik sakonena Ithurry-ren «Grammaire Basque» bikainak dakar (334-39). Ez da behin ere ageri, halere, bi adierazpideen batasun luntzekoa.

Hau, ordea, Mitxelena-k etseñplu bikainez argitu dinez, segurua da.

Bidezkoa da, beraz, ene iritziak osatzea eta zuzentzea. Eta bigarren atal horretan hala egiten saiatuko naiz.

LARRESORO, 1970-IX

apaingarriz egiña agertzen zaigu. Inork ez luke Moreten eta Alenonen Kondaira irakuri gabe utzi behar.

A. I.

LOS VASCOS Y LA UNIVERSIDAD. Jose Estornes Lasa. Coleccion Añamendi. Añamendi Argitaldaria. S. Esnaola, 13-Donostia. «Itxaropenan» imprimatua.

Gauregunean, Euskalerrian hain beharrezkoak ditugun Unibersidadeak eta oraindik hasi-masiak, oso ondo etorriko zaigu gure aintzainako Unibersidadeen berri. Uste dut, Euskal Unibersidadeen berri gutxi dakigula, ezer badakigu, gai hontan trebe diranak alde batera utzita. Jose Estornes Lasak, gure eskutetan jarri dizkigu bi tomo; bata-bestez berreun orrialdekoak bakoitza.

Lehen aztarnetatik hasita, Unibersidadeei buruz eman diran pauso guztien berri ematen digu. Ez jakinentzat harriagarriak izango dira hemen ematen diran berriak, zeren Unibersidadeen alde egin diran ahalegiak ez dira txantxeta-koak izan.

Euskalerrian Unibersidadea egiteko asmoak XIII gizaldian hasi ziran. Teobaldosk Eromako Aita Santuaren Baimena lortu zuan, baina azkenean ez dakigu zergatik ez zan eraiki.

Euskalerriko Unibersidadeak urte hauetan eraikiak izan ziran: Lehe-

nengo, Oñatiko, 1540. Iratxekoa, 1565-ean. Iruñekoa, 1608-an. Nafarroakoa, 1960-ean. Deustokoa, 1963-an. Eta Bilbaokoa, 1968-an.

Bi liburutan, Unibersidadeari eta Euskal Kulturari dagokion guztia dakarki. Liburu hontan tratatzen dira ere Euskal Unibersidadearen alde eman diran pausoak. Eta bigarren tomoaren azken hiru kapituluetan gai hauek dakarzi: Euskal Unibersidadea izan behar dugun ala ez, zergatik eta bere bereiztasunak eta beste xeetasunik ere. Eta beste bi ataletan, Euska Ikaskuntza Elkarte (Sociedad de Estudios Vascos), eta Euskal Ikaskuntza Kongresoak.

Hutsune bat arkitzen diogu liburuari. Esango da, erderaz idatzi bada, euskeraz ez dakitenek ere jakin dezaten dala, baina gure iritzi euskeraz ikusi nai genituzke euskal idazleen eta euskal kultura idaztiki.

A. I.

## Perfumeria URBIETA

Ederketa - gela


Donostia'ko Urbieta kaleko 14'garrean arkitu ditzaitez:

BALENCIAGA, CARVEN, CHRISTIAN DIOR, GUERLAIN, HARRIET HUBBARD AYER, HELENA RUBINSTEIN, LANCASTER, LANCOME, MAX FACTOR, PARYOT, REVLON.

Urbieta, 14

DONOSTIA

Amar urte barru, 1980 urtean Marten-eroko gura sartut eskursioan ibiltaroko



## Kili-Kili'ren ibillaldiak

Kili-Kili, 8.000 umeri euskeraz irakasten dabilen mutiko ospetsua dozue.

Ikusiko dozuezan argazkiak, barriz, 1969-70-eko ikastaroan sartuak izan diradenak dira. Aundikiro egin dabez euren ibillaldiaz 12 autobusetan.

Euretariko bi, autobus bi. Bizkai, Araba, Nafarroa ta Gipuzkoa zear ibiliak dira, iru egunetan. Bilbon urten eta Estibalitz, Lizarra, Iruñe, Leire, Xabier, Otxagabia, Orreaga, Lesaka, Ondarrabia ta Donostia zeartu ebezan.

iBa-zan antxe alaitasuna, euskera ta zorional Itz bat etxakoen antzuan erderaz, jAngo kanta, dantza, biribilketa, soka-saltaka ta soka-tirakal Eten barik iru egunetan.

Beste batzuk, Bizkai-Gipuzkoatik ibili ziran. Ondorengoak, Bizkai baruritan.

Guztira 720 kili-kilitar izan dira ibillaldi orreikin sartuak. Enparauel barriz, idatzi poitak opaldu deutesz. Lan itzela dagi Kili-Kili mutiko kementsu orrek. Ezpai-bageko euskal-lana. Orain arte, zortzi bat mila ume izan dauz bere ardurapean, eta 1970-71-ko ikastaroan, beste aibestegaz ugariut bear eidau bere senditarte. Zelan? Ez dakigu. Baina orrek asmatzen ez dabenik, ez da, ta bere maratilla ta gailzekin zabalduko ditute atsek, diñoana lortzeko.

¡Bejondeiala KILI-KILI bikain orri! Nortasun aundia lortu dok eure ikastaro berdinbako orreikin! Izan be ez dok makala, ume bakotzari bere etxera ikastola ta irakaslea eroatea, ta ori, duan, debalde.

Orain, mutiko izugarriko orrek diñoskunez, joan dan ikastaroan jaso dituan millaka idazkirekin eta beste aibeste umeak bete dituen kuadernoeikin, Erakusketa bat, Exposizio bat, antolatut bear eidau. Ikustekoa izango da.

Olakoeak dira asiko daben ikastarorako asmoak.

Gerorako, batek badaki zertzuk asmo darbilzan. 1980-garren urtean, amar urte barru, Marten-eroko ei-ditu kili-kilitar guztiak, ilabeteko eskursioan, illargira ez ditute eroan nai, an autsa ta arri-


-zakarrak besterik ez dagolako. Marten barriz, euskaldunak bizi ete-diran-edo, irakurri ei-dau nunbait. Dana dala, asi da illargia zear sai-oak egiten ikusi daikeuzen bezala.

Ori, Marterako bidea gertatzeko. Zer ikusteko ete gagoz izugarriko mutiko orreikin?

ABELETXE



Amabi autobusek eroan eben iragarkia.



Bizkai-Gipuzko aldera joan ziran batzuk. Begira ze begi argiak!

## LAN-ESKEINTZA

Bi aur dituzten senar-emazteak etxe-lanetarako neska bat behar dute. Urbieta, 20-3gn. ezkerrean DONOSTIA

## MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA  
Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)  
Avda de Francia, 1  
I R U N



Ereria epela dagola?

FAGOR'ek oztuko du berela



Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatua
- Esne soilla (esterilizatua)
- Esne autsa
- Esne-gaiña
- Guriña
- Yogur
- Batidunak

Igara zuzoa - Apart. 213 - Urrut. 29660 (lau art) — DONOSTIA